



Kasu-azterketa.

2016ko abenduak 20, asteartea

Zuzendari andrea:

Gutun honen bidez zuregana jo dut, une honetan, gelan arazo handiak daudelako eta aholkularitza juridikoa eskatu ondoren, gomendatu didatelako errazagoa izango dela zuri egoeraren berri idatziz ematea.

Nire seme AAA jazarri egiten dute gelako zenbait ikaskidek.

Arazo txikiekin hasi eta egoera larritu egin da denborak aurrera egin ahala. AAA(e)k irainak, burlak eta kolpeak jasaten ditu egunero ikastetxean.

Askotariko irainak eta burlak jasaten ditu: tontoa dela eta ez duela ikasturtea gaindituko esaten diote, ez hitz egiteko, hark esaten duena ez zaiela interesatzen, eta irainak ere bai: putasemea, zure ama puta da, eta esateak ere lotsa ematen didan beste gauza asko.

Jolas-garaian, ikaskide horiek ez diote jolasten uzten baldin eta ez baditu eraman bezperan jolas-garaiko jolasetan parte hartu ahal izateko emateko agindutako jostailuak. Beste egun batzuetan, ezin dela jolastu esaten diote zuzenean, taldeko lau buruk halaxe erabaki dutelako, eta bestela, hormaren aurka jartzen dute epaia emateko: jolastuko duen edo ez.

Jakingo duzu AAA(e)k ... du eta duela bi aste, krisi bat izan zuen ikastetxean. Bila joan behar izan genuen, berehala, sendagilearengana eramateko. Egun batzuetan etxean atsedean hartzen egon ondoren, ikastetxera itzuli zen umea eta jolasgaraian, patiora irtendakoan, ikaskide batek korrikaldi bat egitera behartu zuen, benetan ... duela egiaztatzeko eta hau esanez: "korri, nahiago nuke itoko bazina eta ... krisia izango bazenu". Oso larria iruditzen zait, kontuan hartuta urteak daramatzala tratamenduan tamalez duen arazo horren harira.

Askotan iritsi da umea etxera markatuta, eskola-orduetan ikaskideetako batek emandako kolpeen ondorioz.

Are gehiago, abenduaren 17an, umea informatikako eskolan zegoela, zaplada bat eman zion ikaskide batek aurpegian eta hori, ustez irakasle baten zaintzapean dauden eskola batean.

AAA(r)entzako jasanezina da egoera. Une honetan, ez du eskolara joan nahi, gauzez ez du lorik egiten, suminkor dago eta sintoma psikosomatikoak ere baditu: buruko mina egunero eta sabeleko mina.



Kasu-azterketa.

Duela hilabete inguru, zuri gutun honetan kontaktzen ari natzaizkizun hauen berri eman nion tutoreari eta esan zidan, adi egongo zirela eta deituko zidala egoeraren balorazioa egiteko. Handik astebetara, tutoreak deitu eta esan zidan umeen gauzak zirela, garrantzirik gabeak.

Abenduaren 18an, ostirala, tutorearekin bilera batera joateko deia jaso nuen, aurtengo ikasturteko lehenengo ebaluazioari buruz hitz egiteko.

Ikastetxera iristean, semea patioan bakarrik eta baztertuta zegoela ikusi nuen. Ez zion inork hitz egiten eta ez zuen inork harekin jolasik egiten.

Bileraren hasieran, tutoreak esan zidan kasualitatea zela semea egun hartan jolasgaraian hala egotea, gainerako egunetan, lagunekin egiten zuela beti jolas. Ez dut uste horrela denik; izan ere, Umeen gauzak zirela esan zidan eta iradoki zidan arazoa agian gure semearena izango zela eta berak ez zuela nik kontatutako eta gure semea zalantzarik gabe jasaten ari den ezer ikusi.

Vox populi da jazarpen kasu hau; izan ere, eskolako ume zaharrago batzuek eta guraso batzuek ere ezagutzen dute egoera, haien seme-alabek ikusi eta kontatu dutelako.

Nola da posible irakasleak gertatzen ari denaz jabetu ez izana?

Zuri eta tutoreari, agian, hau txikikeria edo ez dela ezer irudituko zaizue, baina AAA, une honetan, oso gaizki dago. Umea, berriro esango dizut, oso triste eta deprimituta dago eta ez da lehengoa.

Espero dut gutun hau irakurrita gai honen inguruko neurriak hartuko dituzula eta arazoa ahal bezain laster konpontzen asmatuko duzula, kontatu dizudana nahiko larria baita.

Aldez aurretik, mila esker.

Agur bat.

Ikaslearen amaren sinadura